



Bizkaieradunok euskara estandarraren aurrean

Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Gotzon Aurrekoetxea. Bizkaieradunok euskara estandarraren aurrean. Mendebalde Kultur Alkartea, pp.235-246, 2000. <artxibo-00074839>

HAL Id: artxibo-00074839

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00074839>

Submitted on 24 May 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

BIZKAIERADUNOK EUSKARA ESTANDARRAREN AURREAN

G. Aurrekoetxea
2000-01-17

0. Izenburua norabide batean baino ipini ez dudan arren, izatez itzulia eta guzti aztertuko dut: *Bizk.*aieradunok euskara estandarren aurrean eta euskara estandarra *Bizk.*aieradunon aurrean. Eta ez *da* deigarri egitearren. Alde bietako interakzioan, alde bietatik ahalegina eginez lortuko delako halako sinbiosi onuragarria baino.

Hizkuntza idatzi, jaso edota kulturako estandarizazioa abiadan jarri zenean, ez zen aldi berean ordura arte idatzian eta *batez ere* ahozkoan erabiltzen ziren *eredu* dialektalen estandarizazioa kontuan hartu. Idatzia prestigiatu zen, ez ahozkoa. Idatzia estandarizatu zen, baina ez ahozkoa. Eta horren ondorioak benetan nozitu dira.

Horien artean bi *eredu* bata bestearen aurrean gertatu dira: bata formalizatua, osoa, koherentea, liburuetan kontsulta daitekeena, oragarria, ezaguna; bestea ez formalizatua, finkatu bakoa, sarri ezin kontsulta daitekeena eta gehienetan ezezaguna.

Zurrunbilo horretan batua eta estandarra nahastu genituen. Euskara estandarrean argitaratzen zen literatura irakurri behar zen ikasle barria trebatzeko (tarte luze horretan ez *da* literatura klasikorik irakurri). Horrela, literatura ‘batu’ horretan agertzen zen lexikoa eta gainontzeko hizkuntza baliabideak *de facto* ‘lexiko batuan’ eta euskara batuan bihurtu ziren (*zapatua* ez zenez agertzen literatura horretan batutik kanpokotzat genuen, ezta *nesken eguna; amaituren orde mundu guztia bukatu* esaten hasi zen.). Eta euskalki desberdinen ezaugarri eta aberastasunak baztertuak izan dira tarte luzean.

Hortik etorri da, nire ustez, sarri entzun dugun ‘bizkaieradunon akatsa’. Eta ingurumari horretan gertatu da bizkaieradunon dibortzioa: batzuk batua onartu ez eta beste batzuk ‘batuaz’ baino arduratzen ez! Batzuk tradizioari lotuta oso-osoan, besteak tradizioari lepoa emonda etorkizuna eraiki gurean. Bi posturon artean zubi bako amildegi ikaragarria bizi izan dugu urte askoan, zubiak zelan egin jakin barik. Denbora asko egin dugu batzuk trokaren alde batean eta besteak bestean, batetik bestera igaro ezinik, bakoitza bere bidean.

Baina izurrite handienak ere bere amaiera duela esaten da; gureak ere badaukala ziur nago. Sasoi baten euskara batuaren aldeko apustua egindako gure arteko baten bizkaieraz idazteko ‘premia sentimental eta ideologikoa’k sinbolizatzen du jatorrirako itzultzearen garrantzia.

Bi zeregin handi ikusten ditut arlo honetan: bizkaieraren corpora eta idaztarauak zehaztea eta bizkaierak euskara estandarri ekarri, eskaini edo aporta liezaiokeenaz eztabaida edo elkarrizketa sortzea.

Bigarrenetik hasita puntu bi dira jorratu gura ditudanak: duela urte batzuk *Mendebalde Kultur Elkartek* Euskaltzaindiari Hiztegi Batuan sartzeko eskaeran agertzen ziren 388 berba haien egoera, batetik; eta Euskaltzaindia burutzen dabilen Hiztegi Batuan agertzen diren euskalkien aipamenak, bestetik.

1. '*Bizk.*aieratik baturako ekarpenaren hasiera: lexikoa'. '*Bizk.*aieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak' lana plazaratu zuen Mendebalde kultur elkarteak duela 5 urte Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean. Txosten publikoaren¹ azken zatiak, lexikoari dagokionak, '*Bizk.*aieratik baturako ekarpenaren hasiera' *du* izenburua. Sarreran 'gure ustez Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko batzordeak berba guztiak jaso behar lituzke' (1998, 286) esan ostean ordura arte argitaratutakoaren jarraipena egiten zuen (A-G letretakoa). Ondorio legez 'ez dugu onartzen hitzok markatzea, hau *da* 'Ikus' edota '*Bizk.*', edo antzeko beste oharririk eranstea' (idem) adierazten da.

Baina zer gertatu da? Zein egoeratan agertzen dira 388 berba haiek? Hona datuak: 297 berba agertzen dira Hiztegi Batuko zerrendan (%76,2). Horietatik:

a) Euskalkien erreferentzia barik 196 berba agertzen dira HBn (%50,5):

- 167 berba beste barik, euskalkiaren aipamen barik, agertzen dira.
- 29 berba forma desberdinean (ad > iz.; edo forma desberdina)

b) *Bizk.* erreferentzia dutenak 101 berba dira (%26):

- 73 *Bizk.* erreferentzia hutsa dutenak
- 6 berbak *Bizk.* ezaugarria dute eta forma desberdinean agertzen dira.
- 22-tan '*batez ere Bizk.*' agertzen da.

c) Onartu ez diren berbak 91 dira (%23,4). Horien artean aurkitzen dira, beteak beste *abazusa*, *afrontu*, *ahozpez*, *aldra*, *amata(tu)*, *aratinik*, *ardi* (= *kukuso*), *arrakada*, *basatza*, *begitxindor*, *berbaldi*, *halandaze*, *inetazi*, *jakan*, *txindor*, *urak hartu*..

2. Euskaltzaindia burutzen dabilen Hiztegi Batuan agertzen diren berba batzuen jatorria zehazteko euskalki eta eremu geografikoen aipamena agertzen dira maiz. Euskalkien aipamenak landuko dira ondoko lerrootan. Azkerketa *Bizk.*aiera, gipuzkera eta zubereraren eremuetara mugatzen da².

Hona hemen lehen-lehenik emaitzak letraz letra eta hiru euskalkiak kontuan hartuta:

¹ *Euskera* 39-3 (1994), 795-830, lexikoari dagokion zatia 809-830. Ondoren lexikoari dagokion zatiak beste argitalpen bat ezagutu *du* Mendebalde Elkartearen *Mendebaldeko euskeraren ekarria* titulua duen 1998 argitalpenean, 285-312. Aipamenak hemendik hartuko dira.

² Azterketa, bestalde, hasieratik *santu* letraraino egin da, orijinala entregatzeko sasoian argitaratuta zegoena hartuz.

	BIZK.	GIP.	ZUB.
A	24	2	4
B	29	9	4
C	-	-	-
D	6	-	-
E	40	1	1
F	-	2	-
G	21	4	1
H	11	1	8
I	24	2	1
J	9	2	2
K	20	10	6
L	31	4	1
M	30	2	8
N	13	-	3
O	35	4	3
P	25	3	5
Q	-	-	-
R	-	-	-
S	23	7	1
T	46	11	11
U	27	2	6
X	-	1	3
Z	43	7	9
GUZTIRA	457	74	77

Beraz, *Bizk.* aieraren aipamena 412 aldiz agertzen den bitartean gipuzkera 74tan agertzen *da* eta zuberera 77tan. Honen aurrean ondoko hausnarketa proposatzen dut:

- a) Orokorki begiratu, Hiztegi Batua euskara batuaren hiztegitzat hartzen dut. Hau da, euskara kultu, jaso erabili behar denerako hiztegia. Honelako hiztegi batean euskalkien aipamenak egiteko egokitasunaz itauntzen dut. Hiztegi baturako, hau da, batuan berba egiteko, halako kopuruko berba zerrenda eraikitzean ba ete lekurik euskalkien aipamenak? Beharrezkoak ete dira? Aipamen horiekin hiztegi batuarena baino ez ete dauka antz handiagoa euskalkien hiztegiarena? Ezen, nire ustez, euskalkien laburdurak ipintzea gehiago *da* euskara dialektalizatzea, estandarizatzea baino. Hitz horiek maila honetako hiztegi batuko zerrendan agertu behar duten ala ez *da* eztabaidagaia nire ustez. Euskalkietako aberastasunak euskararenak direla uste dugunontzat soberan daude lokalizazio horiek. Berben lokalizazio geografiko zein bestelakoetarako hor ditugu besteak beste Azkueren hiztegia, *Orotariko Euskal Hiztegia* edo *Diccionario de Autoridades* delakoa. Laster izango dugu kontsultagai, gainera, gaurko ahozkoan erabiltzen diren berbentzako Euskaltzaindiaren *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*a.
- b) Arazo orokorrak alde batera itxita, zein *da Bizk.* aiera eta gainerako euskalkien lekua zerrenda horretan³? Datuetan ikusten duzuen *Bizk.* aierak ‘erraz’ gaingitzen ditu aldamenekoak (ez dut ‘goleadaz’ esango ez delako euskal berba). Batzuek

³ Baten baten ustez baliteke gauzak bere onetik ateratzea, baina euskara batua euskalkien orekan oinarritu behar dela uste dugunontzat aproposa *da* azterketa konparatibo hau proposatzea.

normaltzat hartuko dute eta, *Bizk.*aiera bazter euskalkia izanik, ahalegin berezia egin dela berorren berbak sartzeko gaineratuko dute, euskalkiaren aipamena egin behar izan bada ere. Baina, beste ikuspegi batetik, ez *da* ukatu horrela agertzen den berba, itxuraz behintzat ez dagoela gainerakoen parean, ez dela noranahiko euskaran erabiltzeko gai. Euskalkiaren aipamenak muga ezartzen dio aldamenen duen berbari eta berez alboratu egiten du.

- c) Irakurketa zehatzagoa eginez, eta gorago aipatu diren kopuruetan zer dagoen ikusiz, diferentziak handitu egiten dira: *Gip* ezaugarria dutenen 74 berben artean, adibidez, maila desberdinetakoak aurkitzen dira: badira 11 berba zerrendan agertzen diren berben aldaerak direnak (*borobil Gip h. biribil* modukoak); badira beste 11 berba kasu marka edo kategoria desberdinetan errepikatzen direnak (*gainontzean* eta *gainontzeko*, *jela* eta *jelatu*, *kilima-kilimakor* eta *kilimatu*, *korrika* eta *korrikalari*, *pusketa* eta *pusketatxo*); 4 herri mailako berba (*flakia*, *komenentzia*, *lizentzi* eta *okasio*) eta beste bat lagunartekoa (*kuxidade* = *txukuntasuna*). Zalantzetan nago euskara jasorako hiztegia egitean *flakia*, *kojo*, *kuxidade*, *komenentzia*, *fio* edo antzeko berbak behin-behineko zerrendan sartu behar diren. Bada, horiek kenduz gipuzkerako hitzak 30-era baino ez dira heltzen. Horietan sartzen dira *apartatu* (= *aukeratu*), *atzen* (*Bizk. ere*), *bailara* (= *eskualde txikia*), *basur*, *bederik*, *behatz*, *belaze*, *beta*, *esnatu*, *gajo*, *garo*, *iaio*, *ilbeltz*, *kardaba*, *kojo*, *lain*, *laino* (= *hodei*), *linai*, *pijo* eta *samalda*. Zer esan gura *du* horrek? Gipuzkera lexikoan urria dela, ala gipuzkerazko berba asko euskalkiaren aipamen barik agertzen direla (hala nola *arkitu** e. *aurkitu*, *itxoin* h. *itxaron*).
- d) Bestalde, zelan ipin dakioke gaur egun Miranderengandik hasi eta gazte poeten artean oso erabilia den *beilegi* berbari, adibidez, *Bizk.* laburdura? Edo *esnatu* edo *korrika* berbei *Gip* ezaugarria, Euskal Herri osoan eztaikitzenbat aldiz arineketan ibili ostean? Tristeia *da* *laino* berbari ‘*Gip. batez ere*, h. *hodei*’ ipintzea bigarren adieran, euskara mintzatuan, aldaera ezberdinekin, Euskal Herri osoan ezagutzen denean. Eta gauzen planteamendu orokorragoa eginez, noiz *da* hitz bat bere jatorrizko eremu geografiko edo linguistikotik askatzen? Noiz egiten *da* euskaldun guztien altxor eta ez batzuen? Euskara estandarra nahinon eta nornahik ekoiz dezakeenean, uste dut badela ordua jatorriaz ahaztu eta erabilpenaz arduratzeko.
- e) Euskalkien aberastasunak. Badira bereizkuntza batzuk euskalkiren batek gorde izan arren gainontzekoetan galdu direnak. Horietako batzuk aipatzearen *Bizk.*aierak gorde dituenak aipatzea *da* egokiena foro honetan. Guztiz ezaguna den ‘neba’ berbari ez ete *da* sasoiak ‘*Bizk.*’ hori kendu eta euskaldun guztioi erabiltzea gomendatzeko? Berdin esan daiteke ‘lehengusina’ berbari buruz.
- f) Aipatu behar *da* ere Mendebalderen txostenean agertzen ez diren beste 300 baino berba gehiago agertzen direla HBn *Bizk.* erreferentziagaz. Denak ez ditut aipatuko baina hona batzuk: *Arrasti*, *arrakalatu*, *auma*, *astegunak* (*zapatu* berbak *Heg. dauka* eta ez *Bizk.*), *hilegunak*, *berakatz*, *berton* eta *bertoko*, *biztu*, *bizien*, *eragon*, *eroan*, *esakune*, *etxagun(tza)*, *hegaz*, *garandu*, *gosekil*, *hiltamu*, *indba*, *kaardntxilo*, *katamixar*, *karu*, *matxingorri*, *odoloste*, *ogasun*, *ogigazta*, *okasio*, *ortozik*.

Nire jardunak ez *du* kritika hutsa egiteko asmorik. Itxidazue proposamen pare bat egiten denon artean eztabaidatzeko:

- Orohar hiztegi batuko zerrendan euskalkien aipamenik ez egitea proposatzen dut nik ere. Euskara batua noranahikoa izan behar *bada* edonongo berbak erabiltzeko eskubidea izan behar *du* erabiltzaileak; hori bultzatu eta lagundu beharko luke hiztegi batuko zerrendak.

Hitzen aldaera desberdinak agertzen direnean, ostera, ipintzea proposatuko nuke; beti euskara baturako hobetsi den aldaerara bideratzeko *ik.* edo *h.* erabiliz:

min ik. mihia,
eskegi ik. eseki,
eskuma ik. eskuin,
hegaz ik. hegan,
itzarrik ik. iratzarrik,
izeko ik. izeba,
jagi ik. jaiki,
moropilo ik. korapilo,
narru ik. larru,
okaran ik. aran

modukoak, esate baterako, edo astegun eta hilabeteetan: *eguen ik. ostegun, bariku ik. ostiral, marti ik. martxo..*

- Bestalde, beste era bateko erreferentzia ipiniko nieke nik neuk mailegu berriei (gehienek *Heg* edo *Ipar* laburdura dute). Beharrezkotzat jotzen dut *axuant*, *azafrai*, *azukre*, *bakazio* edo *bakantza*, *beka* eta *bekadun*, *benda*, *bentaja*, *bolumen*, *koaderno* eta antzekoei euskal ondarezkoak ez direla adierazteko ikurren bat jartzea, nahiz euskal hitzak diren. Oraingo sisteman maileguak bapo-bapo agertzen dira jatorrizko ezelango erreferentziarik gabe, euskal ondarezko askok euskalki mailakoa duten bitartean. Etxekalte.

3. Hau guztia ikusita, zer egin behar dugu *Bizk.*aieradunok euskara estandarren aurrean? Zelango euskara estandarra ekoiztu behar dugu gure lanean eta gure produkzioetan? Itau hauei erantzuna emoten ahaleginduko naiz azken minutuetan.

Aukera bat, batzuen proposamenaren bidetik, euskalkia lagunarterako eta etxerako ixtea da. Beste bat burruka antzuetan jarraitzea izango litzateke, beti kexatzen eta ezer gitxi egiten. Hirugarren bidea aukeratuko nuke nik: behingoan ‘alde positiboan’ kokatuz, euskara estandarri geure kolorea emoten ahalegintzea. Gure hizkuntza ezaugarriak, geure lexikoa, geure berezitasunak ezagutarazi, ausardiaz erabiliz denontzat onargarri den euskara ekoiztuz!

Ezin dugu bigarrenez trena galdu! Behingoan joan zitzaigun eta gipuzkera bihurtu zen euskara, euskara monokolore edo kolorebakarra sortuz.

Euskara bat dugula aintzat hartuta, *Bizk.*aieraren ezaugarriak noranahiko euskaran txertatzea izan behar *da* gure zeregina.

Eta urteotan hiztegitan (Bostak Bat lantaldean) ibili garen aldetik lexikoan zelan txertatu *Bizk.*aieraren berbak euskara zabalean izan *da* gure arduretako bat. Eta ahalegindu gara astiro-astiro gure etxeetan, gure herrietan, erabiltzen diren berbak eta aldaerak hiztegian integratzen. Han agertzen ez badira inork ere ez dituelako erabiliko. Gure kortatik, sutondotik, solotik eta estartatetik kultur bideetara jaso ditugu hainbat eta hainbat berba eta esamolde.

Bide hau zuzen eta egokia dela sinestuz egin dugu, gainera. Konbentzimendu osoz, jakinik euskal literaturan agertzen ez den berba asko, gehiegi esango nuke, aurkitzen dela gure baserritarrengan eta ahoa zabaltzen duten bakoitzean isurtzen zaiela halakoren bat.

Eta hori jakinik, nahikotzat jo behar ote dugu euskal literatura hizkuntza estandarreko hiztegi batua egiteko? Horiek beharrezko dira, eta hori onartzen ez duenik ez dagoela ez hemen, ezta euskararen lurretan esango nuke. Baina ez *da* nahikoa. Arlo semantiko osoak daude literatura horretatik kanpo. Izan dadin landaretza edo etxegintza edo sexua edo nik dakita! Esango luke gure muturreko anaiak. Gai horietan autoritatezko lekukoak ditugu baserritar petoak, zorionez edonon aurkitzen direnak. Horien berba asko eta asko jaso ditugu gure hiztegitan. Baina ez denak oraindik, tamalez!

Horregatik zuoi ere laguntza eskatzen nator, zuen inguruetan erabiltzen dituzuen berba eta esamoldeak idaztean ere erabiltzeko; konplexu barik. Euskara onenaren jabe zaretelako. Jasotzaile eta garraiolari izatea eskatzen zaizue; etxean, sutondoan, herrian, entzuten diren formak eta berbak etxetik, herritik, atera eta *mundu* zabalean hegaz hasteko bitartekoetara ekarri behar ditugulako. Guk erabiliz besteek ikasiko dute eta ez badute erabiltzen ere, ezagunagoak behintzat bihurtuko zaizkie.

4. Badugu behar honetan zer eginik oraindino. Batu ahala berbon forma edo aldaera estandarra erabaki beharko dugu. Berba asko eta asko dauzkagu ezagutzen diren aldaeren artean zein onartu erabakitzeko. Aldaera desberdinak, bakoitzak berea, erabiltzea ez *da* posible, ez gaitezen *Bizk.*aieraren izenean anabasean ibili. Zein aldaera erabili erabakitzeko zain ditugu, adibidez, ondoko berbak:

Gangar – gangor – gangur – galdor
 Durundi – durundu
 Dandarrez – tatarrez – tarraz – narraz – tarraska
 Orroi – orroe
 Puxika – puxiga
 Tangada – tantakada
 Ondiño – oraindio – oraindino
 Letxe – legetxe
 Odoloste – odoleste
 Kili-kolo – kili-kola
 Ausiki – usiki – useki
 Buzkantz – buzkentz

Beste batzuetan *jada* aukera eginda dago. Hala nola:

Kirikino – kirikio – kirikiño – kirikolatz – kirikiñolatz
Laskitu – lauskitu
Ezkaratz – ezkatz
Suete – sute
Berbeta – berbakera
Legez – lez
Mailuki – mailubi – marrubi
Uriola – uiol – uhol

Badira oraindino berreskuragai ditugun berbak *monjorra*, *sokorru*, *zantzo*.. Edo bereizi beharrekoak: *madari* – *makatz*.

5. Kontu handia izan behar *du* euskaldunak euskara estandarrean hitz egin gura duenean euskalki batetik bestera adiera aldatzen duten berbekin, gure berbaldia hartzaileenganaino gardentasunez hel dadin:

lepo (sorbalda / iduna-sama)
 sarri (maiz / berehala)
 motz (itsusi / labur)
 garoa (ihintza / iratzea-idea)

Ikasi behar *du* bere euskalkiko forma auzokoak zelan esaten duen. Nork bere euskalkia ez *du* hartu behar euskararen zil legez, abiapuntu edo erreferentzia gisa baino.

Bizk.aieradunak noranahiko euskaran ere jarduteko gaitasuna izan dezan gurako nuke. Beharra ere izango *du* behin baino gehiagotan. Ez *da* on bere euskalkian gelditzea, uber edo hegaz joateko gaitasuna izan behar *du* eta hori ere ikasi egiten da. Gainontzeko euskaldunon berbak eta hizkuntza baliabideak erabili beharko ditu. Bai gurean kontzeptu bat adierazteko berba egokirik ez dugunean, nahiz izanik ere sinonimo legez edo euskaldun guztientzat solastatzen garenean.

Gure euskara zabalagoa izanez gain koloretsua bihurtuko dugu horrela. Eta ez kolorebakarreko euskara, beti egitura berak eta berba berak errepikatzearen errepikatzeaz aspertzeraino ez heltzeko.

oOo

Mundua arin dabil edo doa, ez dakit zein! Lerro honeik idatzi nituenetik gai honen ingurumaria zenbat aldatu den ezin nei esan! Baina gauzen edo gertakarien norabidea Mendebalderen eragina nabarmena dela ezin *da* ukatu. Mendebalderen ideiak gorpuztuz doaz gizartearen abanguardian; begibistakoa da. Txalogarriak dira zentzu honetan ETBko eta irratietako programa batzuk (bat aipatzearen **Bertatik bertara** saioa aipatuko nuke, euskarari emoten dioten tratamendua gogoraraziz) edo **Euskaldunon Egunkariaren** kasua. Euskara estandarda *modu* zabalean ulertuz. Esan daiteke euskararen

abanguardiako ekintzaile askok bereganatu duela euskararen mendebaldetik proposatzen dogun ikusmoldea. Baina erretaguardiak -zein berba motza ezta!-, atzealdea, oraindino beste *onda* baten dabilelakoan nago. Nire ustez badago hor *landu* beharreko eremu bat, eta ber*andu* baino lehen oratu beharko zaiona.

Azken baten, gura barik ere, euskalkiak eta euskara batuaren arteko dialektikara hurreratzen gara. Eta eztabaida beti leku berera jotzen denean, arazoa ez dagoelako konponduta izaten da. Azkenaldion barrero ere (eta ez atzera barrero) berba asko egin *da* gai honen inguruan. Berba diñot eta ez besterik; eta berba egin den guztietan ‘boteprontoan’ egin delakoan nago. Sakon*du* barik, betiko leloak errepikatzen.

Zorionez, ikerketak be hasi dira sortzen, tesi bat baino gehiago bada amaitu eta amaitu bidean eta ekarri beharko dute argi eta barrikuntzarik! Ze ez dot uste, adibide bat ipintzearren garaje bateko mekanikariak edo torneruak inoiz, gura dogun gizartea amestuta ere, goi mailako kultura gizon edo andrak izango direnik. Ezta urtean ezdakitzenbat liburu irakurriko dutenik. Nekez erabili beharko *du* euskara batua bere bizitza osoan.

Izan gaitezen errealistak, Athletik-zaleak izan arren. Horiek euskara ere*du* bat ikasi beharko dute, euren inguruan egiten dena. Eta horregaz nahiko eta lar izango dute euren bizimodurako. Euren familian, lagunartean, euren bizitzan behar dutena. Eta gaur hori ez *da* bermatzen.

Honegaz ez dot esan gura Euskaltzaindiak ez duela ezer egiten euskalkien alde. Inondik inora ere ez, eta ondo ezagutzen dudana gaia da. Inoiz Euskal Herrian egin den proiektu ausarten eta handiena eskuartean *du* eta.

Baina hori esan arren ez dago dana esanda.

I. ERANSKINA

1. Hiztegi Batuan agertzen diren *Bizk.* erreferentziak

* beltzez azken errepasuan sartuak (konprobatu lehen irakurraldiko zerrendan agertzen diren)

A

Abade 2 *Bizk.* Apaiza

Adin 2 *Bizk.* zah. ‘adimena’

Aiutu *Bizk.* izond

Akabu *Bizk.* ‘amaiera’

Alatu, ala(tu), alatzen *du ad Bizk.* ‘sufritu’

Andrazko *batez ere Bizk.*

Apartatu 1 Lgart. Gip. eta *Bizk.* ‘aukeratu’

Ardi 2 *Bizk.* ‘arkakuso, kukuso’

Arrakala *Bizk.*

Arrakalatu *Bizk. da/du ad.*

Arrasti *Bizk.* ‘arrastiria, ilunabarra’

asaskatu, asaska, asaskatzen. *Bizk. da/du ad.*

Astitsu *Bizk.*

Atrapatu *Bizk.* (berria) h. Arrapatu

Atsitu *batez ere Bizk.* izond. *Sin.* Kirastu

Atzamar 2 *Bizk.* ‘hatza’

Atzazal *batez ere Bizk.* h. Azazkal

Atzen *Bizk.* eta Gip. ‘azkena’

Auma *Bizk.* h. Antxume

Auska *Bizk.*

Auskan egin ‘borrokan egin’

Autu *Bizk.* ‘solasa’

Azartasun *batez ere Bizk.* ‘ausartasun, ausardia’

Azartu *batez ere Bizk. da ad.* ‘ausartu’

azkortu, azkor(tu), azkortzen. *Bizk. da/du ad.* [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]

B

barik *Bizk.*: argi barik. [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]

Bariku Biz h. ostiral

Barraban *Bizk.* izond. ‘barrabasa’

Begirakune *Bizk.* ‘begirada’

Begitandu, begitantzen *batez ere Bizk.* zaio ad. ‘iruditu’ Zer begitantzen zaizu?

behargin *Bizk.* [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]

Beharrizan *Batez ere Bizk.* ‘beharra, premia’

Beilegi, *Bizk.*

Belu *Bizk.* ‘berandu’

belutu, belu(tu), belutzen. *Bizk. da ad.* [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]

Berakatz *Bizk.* ‘baratxuri’

Berbaldun *Bizk.* ‘berritsua’

berbatu, berba(tu), berbatzen. *Bizk. da/du ad.: Josetxo ez zegoen inorekin ezkontzeko berbatua. [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]*

berbeta *Bizk.*

berbetan [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]

Bere *Bizk.* h. ere

Berein *batez ere Bizk.* ‘asko, anitz’

Beresi *Bizk.* ‘txara, sastraka’

Berton *batez ere Bizk.*

Bertoko *batez ere Bizk.* [lehen pasadan sarrera moduan]

besteko *Bizk.*: zuk besteko indarra badu honek. [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, orain *Bizk.*]

Bestera *batez ere Bizk.* ‘bestela’

Betsein Biz ‘begi-ninia’

Bitzuk *Bizk.*

Bizien *Bizk.* ‘minbizia’

Bizigura *Bizk.* iz. eta izond bizinahia’

Bizio 2 *Bizk.* ‘hesteetako zizarea’

Biztu, bizien; *batez ere Bizk. da/du ad. h. piztu*

Bolu *Bizk.* ‘errota’

D

Dandarrez *Bizk.* ‘arrastaka’

Deitu, dei(tu), deitzen *du/dio ad.* [orain: **deitu**, dei(tu), deitzen. *du (Ipar. eta Naf.)* eta *dio (Bizk. eta Gip.) ad.*]

Dindirri *Bizk.* iz.

Domeka *Bizk.* h. igande

Dongaro *Bizk.*

Droga 1 ‘sendagaia’, nerbio-sistema zentralari eragiten dion gaia: droga gogorak eta bigunak; 2 *Bizk.* ‘iskanbila, istilua’. (Hitz elkarketako lehen osagai gisa *droga* forma dagokio, ez **drogo*)

E

eder

eder egin [barrukoa azken bertsioan **bakarrrik: 1 *Bizk. zaio ad.: ez zitzaidan eder egiten gizagaixoari ogibidea kentzea. 2 *dio**** ad. ‘balakatu, losintxatu’

eder iritzi

eder izan, *da/zaio ad.*

Edozelan *Bizk.*

Egotaldi *Bizk.* h. egonaldi

Eguazten *Bizk.* h. asteazken

egubakoitz *Bizk.* h. ostiral

Eguen *Bizk.* h. ostegun

Ei *Bizk.* 'omen'

ekandu batez ere *Bizk.* iz. 'ohitura' [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, sarrera hutsa]

Elai *Bizk.* 'enara'

Elizpe *Bizk.*

Elorrio *Bizk.* 'nekea, estualdia'

enparau *Bizk.* 'gainerakoa'

Eragon *Bizk.*: *lanari daragoio* ('lanean ari da')

Erbatz batez ere *Bizk.*: *erbatza bezain latza da; zuk horretaz ez dakizu erbatzik ere*

Erdu *Bizk.* 'zatoz(te)': *erdu nire Aitaren bedeinkatuok*

Eregi, eregiten *Bizk.* da ad. 'eraiki'

Eroan eroan, eroaten. 1 *Batez ere* *Bizk.* eta Zub. 'eraman'; 2 *Fis:* *beroa eroan; elektroiak eroan*

erratu, erra, erratzen. *Bizk.* du ad. 'huts egin' [lehen bertsioan euskalki aipamenik gabe, sarrera hutsa]

Erremuskada *Bizk.* 'purrustada'

Errime *Bizk.* izond.

Esakune *Bizk.* 'esaera'

Esangin *Bizk.* 'esaneko'

Eskegi, eskegi, eskegitzen *Bizk.* 'eseki'

Eskuma *Bizk.* h. eskuin

Eskutur *Bizk.* h. eskumutur

Etxagun *Bizk.* 'etxeko jauna'

Etxaguntza *Bizk.*

Eurrez *Bizk.* 'ugari'

Ezain *Bizk.* 'itsusi'

ezaindu, ezain(du), ezaintzen. *Bizk.* da/du ad. [lehen bertsioan euskalkien aipamenik gabe, sarrera hutsa]

ezaingarri *Bizk.* [lehen bertsioan euskalkien aipamenik gabe, sarrera hutsa]

ezaintasun *Bizk.* [lehen bertsioan euskalkien aipamenik gabe, sarrera hutsa]

ezeduki 1 izond. 2 iz. *Bizk.*

Ezelako *Bizk.* 'inolako'

Ezelan *Bizk.* 'inola'

Ezko 2 *Bizk.* izond. 'hezea'

Ezkotasun *Bizk.* 'hezetasuna'

Ezkotu, ezko(tu), ezkotzen *Bizk.* da/du ad. 'hezetu'

Eztegu *Bizk.* 'ezteiak'

Ezune *Bizk.* 'ezaldi'

G

Galanto *Bizk.* [lehen bertsioan euskalki aipamenik gabe, sarrera hutsa]

gangar *Bizk.* 1 iz. 'gandorra'. 2 izond. 'ergela, harroa' [lehen bertsioan euskalki aipamenik gabe, sarrera hutsa]

gangarkeria *Bizk.* [lehen bertsioan euskalki aipamenik gabe, sarrera hutsa]

Garagarri *Gip* eta *Naf.* h. ekain; *Bizk.* h. uztail

Garaitza batez ere *Bizk.* 'garaipena'

Garandu, garan garantzen *Bizk.* du ad. 'aleak kendu'

garbai *Bizk.* 'damua'

Garbaitu, barbai(tu) garbaitzen *Bizk.* da ad. 'damutu'

Garo 1 *Gip* 'ira, iratzea'; 2 *Bizk.* 'ihintza'

gatzatu 2 iz. *Bizk.* [lehen pasadan euskalkien aipamenik gabe, sarrera hutsa]

Gauzaez *Bizk.* izond

Gaztangin *Bizk.* 'gaztagilea'

Geun *Bizk.* iz. 1 'amaraun handia'. 2 'lausoa'

Geundu, geun(du), geuntzen; *Bizk.* da/du ad. 'lausotu, gandutu'

Ginara *Bizk.* 'txilarra'

Ginoan *Bizk.* 'neurrian, heinean': *ahal dugun ginoan saiatuko gara lana burutzen*

Gisats *Bizk.* h. isats

Gizaldra *Bizk.* 'giza taldea'

Gizateria *Bizk.*

Gonburu *Bizk.*, adlag 'mukuru'

Gosekil *Bizk.*

H

Hainbat .-en batez ere *Bizk.*: *hainbat lasterren erabaki*

Halan *Bizk.** e. hala

Haserrekuntza *Bizk.* 'haserrea'

Hegaz batez ere *Bizk.*

Hegazka batez ere *Bizk.*

Hegazkada batez ere *Bizk.*

Hegazkaldi batez ere *Bizk.*

Helduera *Bizk.*

Hiltamu *Bizk.* 'agonia'

hozkirri 2 *Bizk.* 'hotzikara' [sarrera berria. Aurreko bertsioan orain 'hozkirri 1' dena baino ez da egon]

Hur 2 *Bizk.* adlag 'hurbil, hurran'

I

Idun *Bizk.*

Iduneko *Bizk.* iz

Ikol *Bizk.* izond 'barne-hutsa'

Ikoldu, ikol(du) ikoltzen, *Bizk.* da/du ad.

Ikoltasun *Bizk.*

Ikoti *Bizk.* 'jauzia'

Ilunkera *Bizk.* 'ilunabarra, iluntzea'

Imilaun *Bizk.*

Imina *Bizk.*

Iminerdi *Bizk.*

Indaba *Biz:* *Phaseolus vulgaris*

Ira *Bizk.* 'iratzea'

Iretargi *Bizk.* 'ilargia'

Iruntz *Bizk.* h. ihintz

Isiotu, isio, isiotzen, *batez ere Bizk. du ad.*
'(argia, sua) piztu'

Isuski *Bizk.* 'erratza'

Itaurlari *Bizk.* 'itaurrekoa'

itogin *Bizk. Sin.* itaxur

**itoiti* e. itaxur, itogin [lehen azken berbaren
ostean Bizk. egoan eta orain ez. Kendu
den bakarra ete?]**

Itzarrik *Bizk.*

Ixi *Bizk.* 'ixo'

Izeko *Bizk.* 'izeba'

Izerdi(-)bitsetan *Bizk.*

Izerdi(-)lapetan *Bizk.*

Izerdi(-)uharretan *Bizk.*

J

Jadetsi, jadets, jadesten, *Bizk. du ad.* 'erdietsi,
loru'

Jagi, jagiten, *Bizk. da ad.* 'jaiki'

Jagon, jagoten, *Bizk. du ad.*

Jakituria *batez ere Bizk.*

Jas *Bizk. iz.:* *dantzan jasa dauka horrek*

Jausi, jaus, jausten, *batez ere Bizk. da ad.*

Jesarleku *Bizk.*

Jesarri, jesar, jesartzen, *Bizk. da/du ad*

Judegu *Bizk. h. judu*

K

Kaden *batez ere Bizk., izond.* 'ahula, argala'

Kadendu, kaden(du), kadentzen, *batez ere Bizk.*
da/du ad. 'ahuldu, argaldu'

Kadentasun *batez ere Bizk.* 'ahultasuna,
argaltasuna'

Kakarraldo *Bizk.* 'kakalardoa'

Kamino *Bizk. h.* 'errepide'

Kanpolarrosa *Bizk.*

Kardantxilo *batez ere Bizk.* 'karnaba'

**kardantxori Bizk. 'karnaba' [lehen bertsoian
sarrera bakarrik, euskalki aipamen
barik]**

Karu *Bizk.* 'garestia'

Katamixar *Bizk.* 'katagorria'

Katutu, katu(tu), katutzen, *Bizk. da/du ad.*
Lgart. 'mozkortu, horditu'

Karutu, karu(tu), karutzen, *Bizk. da/du ad.,*
'garestitu'

Kilimon egin *Bizk.* 'porrot egin'

kipula *Bizk. h.* tipula

kokolo *Bizk.*

Kopau *Bizk.* 'mokadua, ahamena'

Koxu *Bizk.* 'herrena'

Kristandade *Bizk.*

Kuma *batez ere Bizk.* Sehaska

Kurloi *Bizk.* 'txolarrea'

L

Lain *Bizk.* eta Gip. 'adina': *banai z hori egiteko
lain*

Lakar *batez ere Bizk.* 'zakarra'

Lakatz 1 *batez ere Bizk. izond.* 'latza'

Lakatz 2 *batez ere Bizk. iz.* 'gaztainaren
oskola'

Lako 1 *Bizk. h.* bezalako

Lantzean *Bizk.*

Lapatx *Bizk.* 'lapa-belarra'

Lapranean *Bizk.* 'zeharka'

Lar *Bizk.:* *ez dio geroari lar begiratu behar, lar
ondo ere; lar zorrotz erantzun zion;
beldur lar har ez dezaten*

Laratro *Bizk.* 'daratulu'

Larregi *batez ere Bizk.*

Lartxo *Bizk.* 'gehiegixo'

Laru *batez ere Bizk. izond. eta iz.* '(kolore)
horia'

Laskitu, laski, laskitzen, *Bizk. da/du., ad*
'hondatu'

Legegin *Bizk.* 'legegilea'

Legetxe *Biz.* 'bezalaxe'

Legez 1 'legearen arabera; 2 *Bizk.* 'bezala'

Lehengusina *Bizk.*

Lelo 2 *izond. batez ere Bizk.* 'ergela'

Lera 2 *batez ere Bizk.* 'grina'

Letxe *Bizk. h.* Legetxe, bezalaxe

Lez *Bizk. h.* Legez

Likin *Bizk.* 'itsaskorra, likatsua'

Loba *Bizk.*

Lorrin *Bizk. 1 izlag.:* *eguraldi lorrina; 2 iz.:*
satorrak soroan lorrinak egin ditu

Lorrindu, lorrin(du), lorrintzen, *Bizk. da/du*
ad.: *basatzen lorrindu; etxea eta*
ondasunak lorrintzen

Lotsabako *Bizk. izlag.*

Lotsari *batez ere Bizk., 1 'lotsa', 2 pl.* 'giza
ernalkinen ageriko zatia': *ikusitu zuen bere*
aitaren lotsariak agerian zeudela

Luki *Bizk.* 'azeria'

Lupetz *Bizk.* 'basa, lohia, lokatza'

Lupetza *Bizk.* 'basatza, lokatzia, lokatza dagoen
tokia'

M

Madura *batez ere Bizk.* 'padura'

Mailasto *Bizk.* 'artoaren lastoa'

Mailatune *Bizk.*

Mailuka 2 *Bizk. iz.* 'mailu txikia'

Mailuki *Bizk.* 'marrubia'

maiztu, maiz(tu), maizten. 1 *Batez ere Bizk.*
da/du ad. '(arropa) hondatu, higatu'. 2 *du*
ad. '(zerbait) maiz egin'

Makar 2 *Bizk. g. Er. Izond.* 'txikia, ahula'
mamurtu, mamur, mamurtzen. *Bizk. du ad.*
1 *Sin.* mastekatu, murtxikatu. 2

'hausnartu, gogoan erabili'

Mangolino *Bizk. Sin.* karrakela

Marapilo *Bizk.* 'korapiloa'

Marasma *Bizk.* 'armiarma'

Mardo *Bizk.* ‘mardula’
 Mardotasun *Bizk.*
 Mardotu, mardo(tu), mardotzen, *Bizk. da/du* ad.
 Matraka *Bizk.* herr. ‘istilua, iskanbila’
 Marti *Bizk.* h. Martxo
 Martitzen *Bizk.* h. Astearte
 Matxingorri *Bizk.* ‘marigorringoa’
 Mehaztu, mehaz(tu), mehazten, *Bizk. da/du* ad.
 ‘bakandu’
 Min 2 *Bizk.* ‘mihia’
 Moduztatu, moduzta, moduztatzen, *Bizk. da/du* ad.
 ‘zerbaiti itxura ona edo egokia eman’
 Mokil *Bizk.* ‘mokorra, zokila’
 Molokot egin *Bizk.* ‘porrot egin’
 Moltso *Bizk.* ‘multzo nahasia’
 moltsotu, moltso(tu), moltsotzen. *Bizk. da/du* ad.
 Moropilo *Bizk.* h. Korapilo
 Motroilo *Bizk.* 1 izond ‘potoloa’; 2 iz. ‘multzo nahasia’
 Muger 1 ipar. Izond.; 2 *Bizk.* ‘legarra’
 Mukur *Bizk.* ‘enborra’
 Murtik *Bizk.* ‘tutik’

N

Nahastatu, nahasta, nahastatzen, *batez ere Bizk. da/du* ad. ‘nahasi’
 Nabasai *Bizk.* ‘lau hortzeko golde(-)mota’
 nahi 1 iz. 2 *Bizk.* junt.
 nahi. nahi. *Bizk.:* *nahi txantxetan zoazela, nahi benetan zoazela.*
 Narra *Bizk.* h. Larru
 nasai 1 *Ipar.* ‘ugaria, zabala’. 2 *Bizk.* ‘lasaia’
 Nasaialdi *Bizk.*
 Nasaigarri *Bizk.*
 Nasaikeria *Bizk.*
 nasaitasun 1 *Ipar.* ‘ugaritasuna, joritasuna’. 2 *Bizk.* ‘lasaitasuna’
 Nasaitu, nasai(tu), nasaitzen, *Bizk. da/du* ad.
 Neba *Bizk.*
 Nongura *Bizk.*

O

Odoloste *Bizk. Sin.* odolki
 Ogasun 1 *Bizk.* ‘ondasuna’; 2 admin. ‘finantzak’
 Ogidun *Bizk.* ‘ogi-saltzailea’
 ogigazta *Bizk. Mustela nivalis. Sin.* erbinude
 Oinaztarri *batez ere Bizk.* ‘lurra jotzen djen tximista’: trumoiak hots egin *du* eta oinaztarria dator gure gainera
 Oinaztu *Bizk.* ‘tximista’
 Okada *Bizk.* ‘gorakoa’
 Okaran *Bizk.* ‘arana’
 Okasio 1 ‘aukera, era’; Gip. Herr. ‘liskarra’; 3 *Bizk.* ‘hileta’

Olgatu, olga, olgaten, *Bizk. da/du* ad.
 Ongin *batez ere Bizk. g.er.*, ‘ongilea’
 Opetsi, opets, opesten, *Bizk.*, dio ad. ‘opa izan’
 Oraindino *Bizk.* ‘oraindik’
 Orainen *Bizk.* ‘orina’
 Oraka adlag. *Bizk.* ‘oratus’
 orakada *Bizk.* iz. ‘besarkada’
 Orakarri iz. *Bizk.* ‘euskarria’
 Oratu 1 ora, oratzen, *Bizk.*, dio ad. ‘heldu’
 Ordu [kontuz]
 ordurik hona *Bizk.* ‘ordutik hona’
 Orkoro *Bizk.* ‘erpurua’
 Ortozik *Bizk.* ‘oinutsik’
 Ortu *Bizk.*
 Ortuari *Bizk.* ‘barazkia’
 Ortuzain *Bizk.* ‘baratzezaina’
 Osagile *Bizk.* ‘medikua’
 Osatu, osa, osatzen, 1 *du* ad. ‘osotasuna eman, oso bihurtu’, 2 *Bizk. da/du* ad. ‘sendatu’ 3 *Naf. du* ad. ‘zikiratu’
 Ostarku *Bizk.*
 Ostatari *batez ere Bizk.* h. Ostalari
 Ostendu, osten ostentzen, *Bizk. da/du* ad. ‘ezkutatu’
 Otoz otoan *Bizk.* ‘ezustean, ustekabea’
 Otu, otu, otutzen, *batez ere Bizk.*, zaio ad. ‘bururatu; gogoak eman’
 otzara *Bizk.* ‘otarrea, saskia’
 otzaragile *Bizk.*
 otzarakada *Bizk.*
 otzaratxo *Bizk.*

P

Padura *Bizk.*
 Pantaloi *Bizk.* ‘azpiko galtzak’
 Papao *Bizk.* ‘mamua’
 Paita *Bizk.* ‘ahatea’
 Palu *Bizk.* lagart.
 papargorri *batez ere Bizk.* ‘txantxangorria’
 para *Bizk.* ‘labea erabiltzen den pala’
 Patari *Bizk.* ‘piztia’
 Patin 1 *Bizk.* ‘putzu artifiziaia’
 Pekazto *Bizk.* ‘pekatsua’
 Pentzudan *Bizk.*; arazo hori nire pentzudan utz ezazue
 Pepelerdo *Bizk.* (irain-hitza)
 Pernil *Bizk.* ‘urdaiazpikoa’
 Peto 1 izond., *batez ere Bizk.* ‘berdina, erabatekoa’:aitaren petoa *da* seme gaztea; euskaldun petoa; azkoitiar petoa ; 2 iz. *Ipar.* ‘balio gutxiko dirua’, ‘hutsegitea’
 Pilo *batez ere Bizk.*
 Pizta *Bizk.* ‘makarra’
 Plaust! *Bizk.* interj. onomat.
 Plaustada *Bizk.* ‘jaustea, erortzea’
 Polito *Bizk.* ‘poliki, aski egoki’
 Postura *Bizk.* ‘apustua’
 Potin *Bizk.* (txalupa-mota)

Pozkari *Bizk.* ‘poza, alaitasuna’
 Presku *Bizk.* ‘mertzika’
 Pusla *Bizk.* ‘larru azaleko handitu urtsua’
 Puxika *Bizk.* ‘maskuria’

S

Sama *Bizk.* 1 ‘lepoa’, 2 ‘eztarria’
 Sano 1 izond.; 2 adlag. *Bizk.* adlag. herr. ‘oso; asko’
 sasitza *Bizk.*
 saskil *Bizk.* ‘narrasa’
 sastegi *Bizk.* ‘simaurtegia’
 satandera *Bizk.* ‘erbinudea’
 sats *Bizk.* ‘simaurrea’
 sein *Bizk.*
 seindun *Bizk.* ‘haurduna’
 seingintza *Bizk.* ‘haurgintza’
 seintxo *Bizk.*
 seintzain *Bizk.*
 seintzaro *Bizk.*
 sen 1 *Bizk.* ‘zentzu ona’: *ez dezagun sena gal;*
 2: *senak urrutiratzen gaitu arriskutik*
 senikera *Bizk.* ‘senidetasuna, ahaidetasuna’
 sikate *Bizk.* ‘lehortea’
 sikatu, sika, sikatzen, *Bizk. da/du ad.*
 siku *Bizk.* ‘lehorra’
 single *Bizk.* ‘sendotasunik gabea’
 sinistu *Bizk. eta Gip. du ad. h. sinetsi*
 sokorru *batez ere Bizk.* ‘laguntza’
 suete *Bizk.* ‘sukaldea’
 sunda *Bizk.* ‘usaina (gehienetan ez atsegina)’

T

taket *batez ere Bizk.*
 tanga 1 *Bizk.* ‘tanta’. 2 *Ipar.* ‘ezkila-hotsa’. 3
 (jantzi mota) **[nire oharra: tanga 2:
 guk ere kanpai tangadak]**
 tapotz *Bizk.* ‘tapoia, zipotza’
 tatarrez *Bizk.* ‘arrastaka’
 tato *Bizk.* ‘zati handia’: *okela-tatoa.*
 tegi iz. 1 ‘abere edo tresnenezako toki itxia’. 2
